

ARINTZE PLANAREN 1.FASEA

EDOZEIN ZALANTZA ARGITZEKO: autoenplegua@bermeo.eus - 94 617 91 90

TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK

Maiatzaren 11tik 25erako aurreikuspena			
Alarma egoera hastean euren jarduna eten BARIK izan duten establezimenduek BERDIN JARRAITUKO DUTE			
Adib.: janari-dendak, botikak, okindegiak... Ez dira aldatuko ez baldintzak ezta ordutegiak			
Alarma egoeragatik euren jarduna etenda izan duten establezimendueak:			
> 400 m2-ko azalera dutenak IZAN EZIK , merkataritza gunek edo parkeak eta eurretan dauden dendak, kanpoaldetik sarrera barik, gainerakoek ZABAL DEZAKETE honako baldintza hauen pean:			
Establezimendua	Bezeroak	Langileak	Garbitasuna
<p>Edukieraren %30ean zabalduko da. Solairu bat baino gehiago badauka, solairu guztietan mantenduko da proportzio hau. Igogailua badauka, erabilera behar beharrezko egoeretara eta pertsona bakarrera mugatuko da, ez bada laguntzailea behar duela pertsona horrek edo 2 m-ko tartea mantentzeko aukera dagoela.</p>	<p>Establezimendura ez joan COVID diagnostikoarekin bazaude, sintomekin edota berrogeialdian jarri bazaituzte</p>	<p>Lantokira ez joan COVID diagnostikoarekin bazaude, sintomekin edota berrogeialdian jarri bazaituzte</p>	<p>Desinfekzioa egunean birritan; eurretariko bat egunaren amaieran binilozko, akrilonitrilozko edo latexeko eskularruak erabiliz kotoizko eskularru baten gainean, eta desinfektatzaile arruntak ere, lixiba-diluzio prestatu berriak, ehuneko 62 eta 71 arteko a etanol-kontzentrazioak, ehuneko 0,5eko peroxido hidrogenoa minutu batean, edo beste desinfektatzaile eraginkor batzuk.</p>
<p>Txikizkako merkataritza eta antzeko zerbitzuak (ile-apaindegiak, estetika zentroak, fisioterapia, podologia...)</p> <p>Paketeak batzea antolatuta ahal izango da modu mailakatuan, jende pilaketak saihestuz.</p>	<p>Ez erabili komunik behar beharrezko ez bada</p>	<p>Arrisku mailari egokitutako norbera babesteko ekipoa (NBE) eduki eta euren erabilera egokiaz prestatuta eta informatuta egon. Osasun Sailak baimendutako birusak hiltzeko gel hidroalkoholikoak eduki.</p>	<p>Heldulekuak, atea, erakusmahaiak, behegaineak, pertxak, telefonoak, datafonoak, otzarak, komunak, paperontziak, langileen gunek...</p>
<p>Eguedian garbiketarako eta gauzak berriz jartzeko etenaldia egitea gomendatzen da</p>	<p>>65 pertsonentzako lehenetsitako ordutegia</p>	<p>Langileko bezero bakarra. Langile eta bezeroen artean metro 1eko tartea hesiekien eta pertsonen artean 2 metrokoa. Ezin bada, erabili egokia den NBE.</p>	<p>Garbiketa bakoitza eta gero, erabilitako gauzak eta erabilitako norbera babesteko ekipoa modu seguru baten botako dira eta horren ostean eskuak garbituko dira edo gel hidroalkoholikoak erabiliko dira.</p>
<p>Aireztapen egokia bermatu; 5 minutuko gutxienez</p>	<p>Behar beharrezkoa den denboran baino ez egon bertan eta ez egin autozerbitzurik; arreta egiten dizun pertsonak egingo du</p>	<p>Txanda aldatzean postua garbitu eta desinfektatu: erakusmahaiak, hesiak, teklatura, terminalak, pantailak, datafonoak, langileen leku komunak... Langile batek baino gehiago erabiliz gero, datafonoa eta TPVa erabili ondoren, desinfektatu.</p>	<p>Bezeroak komuna erabili behar badu, segutuan desinfektatu komuna, heldulekuak, iturriak...</p>
<p>Establezimendu guztiek, aire zabaleko azokatxoak barne, sastar-ontziak eduki beharko dituzte, ahal dela estalki eta pedaldunak. Sarri garbitu beharko dira eta gutxienez egunean behin.</p>	<p>Uniforme eta laneko arropa edo erabilitako arropak egunero garbitu eta desinfektatuko dira modu mekanikoan, 60 eta 90º bitarteko zikloetan.</p>	<p>Atzamarrekin fitxatzeko sistema ordezkatu edo erabilera bakoitza baino lehen eta gero desinfektatu. Lan taldeari neurri honen berri eman beharko zaio.</p>	<p>Gutxienez egunean behin komun, iturri eta komunitako ateko heldulekuaren funtzionamendua eta garbitasuna berrikusiko da</p>
<p>2 m.-ko segurtasun tartea adierazi: behagainean markak, balizak, pegatinak, kartelak...</p>	<p>Jardueraren titularrak antolatuta beharko du lana neurri hauek betetzeko moduan</p>	<p>Erosi ez diren probatutako arropak eta itzultetako desinfektatu argi ultramorea, ozonoa, sprayak, 48 orduko berrogeialdia...</p>	<p>Probagelak erabili eta gero garbitu eta desinfektatu</p>
<p>Osasun Sailak baimendutako gel hidroalkoholikoak banagailuak ipini sarreran</p>			

ARINTZE 1.FASEA

Txikizkako merkataritza eta antzeko zerbitzuak

* Vending-makinak, autozerbitzuko garbitegiak... makina eta lokaletan garbitasun eta desinfekzio-neurri egokiak betetzen direla ziurtatu, eta erabiltzaileei behar bezala zelan erabili jakinarazi, informazio-kartelak jarrita .
 *Kontseionario eta IAT establezimenduak hitzordu bidez zabalduko dira. Lorezaintza zentroak eta landare-haztegiak ere, azalera kontuan hartu barik.

OSTALARITZA

Aurreikuspena maiatzaren 11tik 25era				
OSTALARITZA: TERRAZAK berriz zabaltzea (estalperik gabe edo gehienez horma 2)				
A R I N T Z E A R E N 1 . F A S E A	Establezimendua	Bezeroak	Langileak	Garbitasuna
	Aurreko urtean udal lizentziak onartutako mahaien %50. Mahai artean gutxienez 2m ziurtatu	Eskudirutan ez ordaintzea gomendatzen da. Kontakutako fisikorik ez daukan txartel edo beste edozein gailu edo sistema lehenetsi.	COVID diagnostikoarekin bazaude, sintomekin edo berrogeialdian jarri bazaituzte, ez etorri lanera	Terrazako ekipamenduaren garbitasuna eta desinfekzioa; besteak beste, mahai, aulki eta bezeroek ukitu ahal duten edozein gainazal. Ahal izanez gero, erabili eta botatzeko mahai-zapiak erabili edo zerbitzu baterik bestera erraz garbitzekoak
	Udalak mahaiak ipintzeko leku gehiago onartzeko aukera dauka	Laguntzea beharrezkoa ez bada, komunera banan bana joan beharko da	Bata bestearen arteko distantzia metro batekoa izango da tartean zerbait badago; bestela, 2 metrokoa. Ezinezkoa denean, maskara erabili. Jarduerarako egokia den NBE erabili eta Osasun Sailak onartutako gel hidroalkoholikoak eduki; bestela, ura eta xaboa.	Menu-kartak hobeto ez erabiltzea; karten ordezkari gailu elektronikoak, arbelak, kartelak edo antzekoak erabili.
	Gehienez 10 pertsona mahai edo mahai talde bakoitzeko, betiere jende arteko derrigorrezko gutxienezko tartea bermatuta	COVID diagnostikoarekin bazaude, sintomekin edota berrogeialdian jarri bazaituzte, ez etorri terrazatara	Langileek norbera babesteko ekipamenduak _NBE erabiltzen jakingo dute.	Ontziteria, beirateria, mahai-tresneria, mahai-zapiak eta horrelakoak, gordeta eduki; ezinezkoa bada, bezeroak eta langileak pasatzen diren guneeetatik urrundu
	Osasun Sailak onartutako gel hidroalkoholikoak ipini terrazan		Laneko txandak eta abar 2m-ko segurtasun tartea bermatzeko egokitu dira, behar izanez gero, erantzulea establezimenduaren jabea edo berak aukeratutako pertsona izango da	Autozerbitzu-produktuak kenduko dira; ahozapitakoak, zotz-ontziak, ozpinontziak, oliontziak eta antzekoak. Erabili eta botatzeko dosi bakarrak edo bestelako aukerak lehenetsi
Eskuz zabaltzen ez diren paperontziak ipini eta barruan sastar poltsa bana		Aldatzeko gune bat egokituko da armairu edo antzekoak jarrita arropak eta gauza pertsonalak gordetzeko	Komunak gutxienez 6 aldiz garbitu eta desinfektatu egunean	
		Uniforme eta laneko arropa edo erabilitako arropak egunero garbitu eta desinfektatu dira modu mekanikoan, 60 eta 90º bitarteko zikloetan.	Atzamarrekin fitxatzeko sistema ordezkatu edo erabilera bakoitza baino lehen eta gero desinfektatu. Lan taldeari neurri honen berri eman beharko zaio.	

Ostalaritza

Veurri horiek segurtasun-planek eta/edo antolaketa-protokolo zehatzek osatu ahal izango dituzte. Plan horiek langileen eta enpresaburuaren edo sektore bakoitzeko elkarte eta patronalen artean adostuko dira, eta jarduera bakoitzaren arriskuaren ebaluazioaren benetako baldintzetara egokitu ahal izango dira

HOTEL ETA OSTATU TURISTIKOAK

Aurreikuspena maiatzaren 11tik 25era

HOTEL ETA OSTATU TURISTIKOAK

Komunak diren guneak erabili barik zabaltea eta murrizketekin, esaterako sukaldaritzan. Ostatu hartuta dauden pertsonen baino ez dute edukiko sukaldaritzan eta ostatu zerbitzu egokia jasotzeko beharrezkoa den beste edozein zerbitzu.

Ezin izango dira erabili igerilekuak, spa, gimnasioak, miniklubak, umeentzako guneak, diskotekak, ekitaldi-aretoak eta turismo-ostatuaren edo hotelaren ostatua erabiltzeko ezinbestekoak ez diren antzeko espazio guztiak.

Komunak gutxienez egunean 6 aldiz garbitu eta desinfektatuko dira.

Bezeroek ohikoak dituzten hizkuntzetan **informazio- kartelak ipini** eta kartelotan ipiniko da instalazioak erabiltzeko dauden murrizketak eta kutsatzeari aurrea hartzeko hartu beharreko garbitasun neurriak.

Pertsonen arteko **2 m-ko segurtasun tartea**. Ezin izango balitz horrela egin, dagokion NBE erabili.

Jende pilaketak edo ilarak egongo direla aurreikusten den tokietan, **behegainean adieraziko guneak**, pertsonen arteko 2 metroko tartea errespetatzeko moduan

Garbiketa eta desinfekzioa, osasun-agintariak emandako jarraibideen arabera, birjartzea eta hondakinak ostatuetatik ateratzea barne. Establezimendua zabaldu baino lehen, instalazioak garbitu egin beharko dira, igarotzeko lekuak, zerbitzu-guneak, gelak, partzelak eta etxebizitzak barne

Dagokien erabilera aldietan, **gutxienez ordu biro garbitu eta desinfektatuko** dira igarotzeko guneetan dauden eta bertatik igarotzen direnek ukitu edo kutsatzeko aukera duten gauza eta gainazal guztiak. Esaterako, igogailuetako edo makinako botoiak, eskailetako eskudelak, ateetako heldulekuak, txirrinak, partekatutako konketetako iturriak.

Erreserba baieztatu aurretik eta ostatuan dagoen bitartean (idatzizko formatuan eta bezeroak ulertzeko hizkuntzan), bezeroak establezimenduan indarrean egongo diren arau bereziak zeintzuk diren badakiela bermatuko da.

Bezeroen esku ipini gelak, edonola ere hotel edo osatu turistikoaren sarreran.

1
F
A
S
E
A

Hotel eta ostatu turistikoak

IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIO-JARDUERAK

Maiatzaren 11tik 25erako aurreikuspena

IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIO-JARDUERAK

Honako jarduera hauek egin ahal izango dira:

- a) Kokapenak aukeratu
- b) Ekipo orokorrak erabili.
- c) Ekoizpen arloaren jarduerak.
- d) Zuzendaritza arloaren jarduerak.
- e) Arte arloaren jarduerak.
- f) Makilatze eta ile-apaindegi arloaren jarduerak.
- g) Jantzigintza arloaren jarduerak.
- h) Argizatze arloaren jarduerak.
- i) Makinista arloaren jarduerak.
- j) Argazkigintza arloaren jarduerak.
- k) Soinuaren arloaren jarduerak.
- l) Talde artistikoaren arloko jarduerak: Antzezleak.
- m) Talde artistikoaren arloko jarduerak: Figurazioa.
- n) Talde artistikoaren arloko jarduerak: Txikiak.
- o) Catering-a.
- p) Postproduktzioarekin zerikusia duten bestelako jarduerak.

Filmateak udalak baimendu beharko ditu eta leku itxietan egiten badira, leku hauek lehenago garbitu eta desinfektatu beharko dira. Filmateetan **seinaleztapen-elementuak** ipini beharko dira. Ahal denean, pertsonen arteko gutxieneko **segurtasun-tartea behegaineko markekin** seinaleztatu da, edo balizak, kartelak eta seinaleak erabilia.

Lan- taldeak behar beharrezkoak diren pertsonetara murriztuko dira, segurtasun tartea mantenduta edo NBE egokia erabilia

Lanaren izaeragatik ezin denean arriskuari egokitutako pertsonen arteko tartetik mantendu ezta babes ekipo egokirik erabili ere, esaterako **antzezleen lanean**, osasun agintarien gomendioei jarraituta egoera zehatz bakoitzerako prestatutako diren segurtasun neurriak jarraituko dira.

Makillatzaile, ile-apaintzaile eta jantzigintzako langileek NBEk erabili beharko dituzte eta erabilera bakoitzaren ondoren materiala

Arropa beste pertsona bati eman baino lehen, **higienizatze**ko neurriak ezarriko dira

1
F
A
S
E
A

Ikus-entzunezko produktio-jarduerak